

Santakrutzak biziberritzeko gogoz

Ostiralean hasi eta datorren asteko asteartera bitarte, dozenaka ekitaldi iragarrita daude, jaia iragan bezala ospatzeko asmoz / 5-12

ANDOAIN
XIV. ANDOINGO ROCK JAIALDIA
hasiera 18:00 | **EKAINAK 11 JUNIO** | doan gratis
NAFARROA PLAZA

THE LIMIÑANAS · EL DROGAS
THE HANGING STARS · GAILU
PARLOR SNAKES · MELENAS

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamenturik

  **ORAIN KULTURA**

 **Bloody Mary**
BARRIO & PRODUCCIONES

 **I WANNA**
PRODUCCIONES

 **RPM**

 **bastero**
PRODUCCIONES

 **ANDOAINO UDALA**

Euskara normalizatzen laguntzeko urrats bat

Buruntzaldeko udaletako Euskara zerbitzuek Ticket Bai fakturazio sistema euskaraz ezartzera animatzen dituzte merkataria. Horretarako, dirulaguntzak prestatu dituzte edo horretan ari dira. Hainbat komertzio hasi dira honezkero haien negozioak egokitzen

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Ticket Bai egitasmoa Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru foru aldundiek elkarlanean garatu dute, eta, funtsean, enpresen zein autonomoen diru sarrierak kontrolatzeko bidea izango dute lurraldean lurraldeko ogasunek. Helburu nagusiak, sustatzaileen hitzetan,

honako hauek dira: zergapekoei laguntza ematea haien zerga betebeharrak betetzeko, eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea. Arabak, Bizkaiak nahiz Gipuzkoak ez dituzte epe eta erritmo berak; azken horretan, esaterako, negozioek aurrean eta hurrengo urtera bitartean ezarri beharko dute sistema, eta sektore

bakoitzak epe desberdina izango du. Zerga kudeaketaren profesionalak, adibidez, aurtengo uztailean hasi beharko dute; jarduera profesionalak, irailean; txikizkako merkatariek, ostalariek eta ostatu sektorekoak, azaroan; garraioa eta aisia, higeriezen sustapena, eraikuntza eta kultura eta pertsona zerbi-

tzuak arloek, 2023ko apirilean; eta fabrikazioa, handizkako merkataritza, telekomunikazioak, finantzak, artistak eta behartuta egongo diren gainerako alorreko profesionalak, 2023ko ekainean.

Dirulaguntza-lerroa eskualdean

Buruntzaldea eskualdeko udaletako Euskara zerbitzuek iragarri dute sistema hori euskaraz jartzeagatik dirulaguntza lerroak prestatu dituztela edo horretan ari direla. Nabarmendu dute fakturak euskaraz egiteko sistema instalatzeak hizkuntza horren normalizazioan beste urrats bat egiteko aukera ematen duela, herritarren hizkuntza eskubideak betetzen ari direla bermatzen dela, eta bezeroei tratatu on bat ematea ahalbidetuko duela. Halaber, zehaztu dute tiketak euskaraz inprimatuz 123/2008 dekretua beteko dutela komertzioek, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa.

Lan mundua estrategikoa da euskararen normalizazioan eta Ticket Bai sistema baliagarria izan daiteke. Zentzu horretan, negozio bat duten dendariak beren herriko Euskara zerbitzuekin harremanetan jartzera eta dirulaguntza eskatzera animatzen dituzte eskualdeko udalek.

Laguntzak, udalerriz udalerriz

Andoain

Laguntza: euskara hutsean, %50eko laguntza, gehienez ere 300 euroko mugapean. Elebitan: kostuaren %30 eta 180 euro, gehienez. Helbidea: Urigain etxea (1.solairua) La salle etorbidea., 6. Telefonoa: 943-30 08 31. Helbide elektronikoa: euskarazerbitzua@andoain.eus

Astigarraga

Laguntza: kostuaren %30, eta gehienez 250 euro. Helbidea: Erribera kulturgunea, Kontxa Etxeberria plaza. Telefonoa: 943-33 50 64. Helbide elektronikoa: kultura@astigarraga.eus

Hernani

Laguntza: 300 euro gehienez. Helbidea: Gudarien plaza 1, 1. solairua. Telefonoa: 943-33 70 29. Helbide elektronikoa: euskara@hernani.eus

Lasarte-Oria

Laguntza: 300 euro gehienez, guztizkoaren %50. Helbidea: Kale Nagusia 33, 2. solairua. Telefonoa: 943-37 61 84. Helbide elektronikoa: euskara@lasarte-oria.eus

Urnietako

Laguntza: 250 euro gehienez, guztizkoaren %30. Helbidea: San Juan plaza. Telefonoa: 943-00 80 33. Helbide elektronikoa: euskara@urnietako.eus

Usurbil

Laguntza: oraindik ez dute prestatu. Helbidea: Irazu kalea, 4. Telefonoa: 943-37 19 99. Helbide elektronikoa: euskara@usurbil.eus

"Bezeroek aukera izan behar dute arreta eta fakturak euskaraz jasotzeko"

Aintzane Ledesma merkataria da, Ileateller ile apaindegiko jabea da. Urnietan du denda, Maximo Yurramendi kaleko 30. zenbakian. Urnietako On Bizi merkatarien elkarterko lehendakaria ere bada. Bere herriko beste merkataria asko eta asko bezala, Ticket Bai sistema ezarri behar du, eta hasi da lanean honezkero. Azaldu duenez, bere negozioko bezero gehienak euskaldunak dira, eta elebitan ezarriko du, euskaraz zein gaztelaniaz. "Euskaraz artatuak izan nahi duten bezeroek aukera izan behar dute fakturak ere hizkuntza horretan jasotzeko; tiketak euskaraz inprimatu ahal izatearena da



Aintzane Ledesma Urnietako merkataria da. AIURRI

Ticket Bai sistemari ikusten diodan abantaila bakarra", adierazi du. "Herritar bat

euskalduna bada eta merkatalgune batean arreta eta fakturazioa euskaraz jasotzen

baditu, konfiantza emango dio horrek, eta, gainera, erosleak eskubidea du horretarako".

Aurreikusten zuena baino inbertsio txikiagoa egin behar izan du Ledesmak bere ile apaindegian, eta hori "albiste ona" izan dela onartu du, merkatarientzat "zailak" izaten ari diren garai hauetan. Dendek fakturazio sistema hori euskaraz jartzera anima daitezten, uste du "funtsezkoa" dela aukera horretaz "behar bezala" informatzea, dendariak jakin dezaten badutela hau egiteko aukera: Ticket bai erabiltzeko software informatikoa euskaraz instalatu, eta tiketak hizkuntza horretan inprimatzeko.

"Naturalki erabaki dugu Ticket Bai euskaraz jartzea"

JONE ETXEBERRIA ANDOAINGO XIXORI BELARDENDA

Billabonatarak 1993an ireki zuen negozioa, eta, beraz, ia hogeita hamar urteko ibilbidea egin du hainbat produktu ekologiko saltzen

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Azarotik aurrera, Ticket Bai sistema erabili beharko du zergak egiteko, eta, dionez, "apurka-apurka" ari da ezartzen. Azkenaldian, esate baterako, dendan dituen produktuen BEZak sartzen ari da, banan-banan, eguerdietan, denda bezeroei itxita dagoenean. "Gehienak sartu ditugu, baina oraindik ez dugu guztia prest; hilabete hauetan gauza berri dezente ikasi beharko ditugu. Erraza dirudi, baina ahalegina eskatzen du, den-dena zuzen egin ahal izateko". Fakturazio sistema hori euskaraz jartzea erabaki du Etxeberriak, "naturalki". "Duela gutxi izan genuen bilera bat Andoaingo Udalarekin, eta beste



Jone Etxeberria. AIURRI

merkatari batekin hizketan, esan nion euskaraz jarriko nuela Ticket Bai". Kontatu duenez, bezero gehienekin hizkuntza horretan egiten dituzte salmentak Xixorin, eta saltzen dituzten produktu gehienek errotulazioak euskaraz dituzte, esaterako, ontziratu gabe saltzen dituzten zereal eta fruitu lehorrak. "Bezero batzuek esaten didate ez dutela ulertzen zer jartzen duen, eta horrelakoetan, nik azaltzen diet". Hasiera-hasieratik ahalegindu dira elikagaien eta bestelako produktuen izenak euskaraz nola diren jakiten eta denda jartzen: "Bezero bat etorri zen behin, eta galdetu zidan ea garagardo legamia ba ote genuen, eta ez nion ulertu, levadura de cerveza nahi zuela esan zidan arte".

Tiket ereduak

Ticket Bai sistemarekin lanean hasten direnako, tiket eredu batzuk prestatu ditu Etxeberriak, hamar zehazki, eta horietan irakur daitezkeen hitz ia guztiak euskaraz inprimatzen dituzte beti, jatorrizko produktuaren izena euskaraz ez dagoen kasuetan salbu. "Xixori hartu nuenetik,

tratua eta salmentak euskaraz egitera ohituta nago, nahiz eta bezero guztiak ez diren euskal hiztunak, eta horrela jarraituko dut aurrerantz ere".

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu duen egutegiaren arabera, txikizkako merkatariak, ostalariak eta ostatu sektoreko negozioek aurtengo azarorako izan beharko dute prest Ticket Bai sistema. Egokitze lanak egiten ari dira Xixorin, eta oraindik den-dena prest ez badute ere, urte amaierarako sistema berriarekin lan egiteko moduan izango direla esan du Etxeberriak. Egin behar izan duen inbertsioari dagokionez, beste komertzio batzuen baina txikiagoa izan da, duela lau pabost urte berri-tu baitzuen tresneria: ordenagailu, irakurgailu eta baskula bana jarri zituen orduan.

Goizez zein arratsalde irekitzen ditu ateak Xixorik. "Ongi lan egiten ari gara: betiko bezeroez gain, jende gaztea ere etortzen da dendara". Aurrerantz, hala jarraituko dutela espero du Etxeberriak, baita Ticket Bai sistemarekin lanean hasi ondoren ere.

TicketBAI

EUSKARAZen onurak

- Ticketak euskaraz ere ateraz 123/2008 Dekretua beteko da, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, alegia.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak betetzen direla bermatzen da.
- Euskararen normalizazio-prozesuan aurrera egiten lagunduko duzu.

ZURE BEZEROEI TRATU ON BAT EMANGO DIEZU





Batzuk moztu egin dituzte, mendizalearentzat arriskutsuak izan zitezkeelako, eta beste asko bere kabuz erori dira. AIURRI

Adarramendiko bidea, biluzik

Montefrio baserria eta Mantaleko erreka bitarteko bidean usteldutako pinuak erortzen ari dira etengabe, eta Adarrako bidea bere xarma galtzen ari da. Mendi-bidea biluzik geratzen ari da azken urte parean, ez urrun baso aberats ederra zenean

Andoni Urbistondo URNIETA

Pandemiak gizakiei erasan dien moduan, mendietako basoak ere eraso dituela ondoriozta daiteke, Adarramendi aldetik osteratxo egiten badugu. Beterriko tontor kuttunenera daraman mendibidea biluzik geratzen ari da azken urte parean, ez urrun baso aberats ederra zenean. Bide horretan barrena ibiltzeak tritura apur bat ematen du, basoa hautsita eta pinu ustel eta ebakien arrastoak baitaude nonahi. Hainbestearino, Aranbegiko bordatik Arlegor gailurrera doan maldan suebaki bat egin dutela dirudiela. Baso sendoa zegoen tokian 30-40 metroko zabala dago egun, eta Adarramendi bera ere garbi-garbi ikusten da Mantaleko erreka iritsi aurretik.

Adarra ondo ezagutzen duenak ondo daki gailurra ez zela agertzen mendizalearen begi bistan Mantaleko erreka pasa eta Belabietako pagadia pasa arte. Gaur egun hori ere aldatu da.

Montefrion gora, lehen ataka pasa eta berehala agertzen dira pinu ustelak maldan edo xenda ondoan barreiatuta. Batzuk moztu egin dituzte, mendizalearentzat arriskutsuak izan zitezkeelako, eta beste asko bere kabuz erori dira. Basoa hain hautsita, triste ikusteak zer pentsatua ematen du. Han-hemenka ikusten dira pago, lizar, gorosti edo urki kimuak, eta litekeena da horiek guztiak urteekin hazi, eta basoa garai batean izan zena izatea berriro. Beste hainbat tokitan, aldiz, ez da kimurik

ikusten, eta pentsatzekoa da, gune horietan, akaso, ez dela zuhaitz berririk haziko.

Nola biziberritu basoa?

Naturari bere kabuz egiten utzi beharko litzaioke? Erakundeek esku hartu eta basoaren garapena zaindu eta lagundu behar lukete? Bat edo beste, neurriren bat hartu beharko litzatekeen aztertzea komeni, pinu guztiak usteldu eta erori egingo baitira urte gutxian. Baso berria etortzerako, akaso, egun Adarramendira igotzen garen batzuk, edo gehienok, ez gara mundu honetan egongo, eta lastima litzateke Urnieta eta Beterriko ondare ezagunena, Adarramendiko bidea, horrela itsusten uztea.



Han-hemenka ikusten dira pago, lizar, gorosti edo urki kimuak. AIURRI



Montefrion gora, lehen ataka pasa eta berehala agertzen dira pinu ustelak. AIURRI



Pinu ustel eta ebakien arrastoak nonahi daude. AIURRI

**ADARRAMENDIRA
DARAMAN MENDI
BIDEA BILUZIK
GERATZEN ARI DA
AZKEN URTE PAREAN**

**MONTEFRION GORA,
LEHEN ATAKA PASA
ETA BEREHALA
AGERTZEN DIRA
PINU USTELAK**



**ENDIKA
GARCIA
PEREZ**

Abokatutza orokorrean • Gai penalak • Isunak • Familia • Lan aferak

Zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz ematen dut.

BURUNTZALDEA • DONOSTIALDEA. Deitu konpromezurik gabe.

616 557 141



SANTA KRUTZ JAIK 2022 ANDOAIN





Desafioa jaien hasieran

LEIRE OTERMIN HARRIJASOTZAILEEN DESAFIOKO PARTAIDEETAKOAK

Ikusmin handia piztu du "Santa Krutz Harri Txikien I. Txapelketa"k, Bekoplazan ostiralean egingo den lehiaketa herrikoia

Erredakzioa ANDOAIN

52 eta 80 kiloetako harri bana plazaratuko dira, eta bakoitzarekin bi minutuko tartea eman-go zaie harri-jasotzaileei, ea nork kilo gehiago altxa. Harri traketak Goiburu auzoko Talaia baserrian daude aspalditxoan, nahi dituenak probatu. Lagun ugari azaldu da baserrira azken asteetan, eta oraingoaz hamar bat lagunek adierazi dute txapelketan parte hartzeko asmoa. Leire Otermin da horietako bat. **Plazaratzeko asmoa agertu duen emakume bakarra omen zara.**

Joan den asteetan hala nintzen, bakarra, baina azken unean beste emakume bat ere animatuko omen da, antolatzaileek adierazi digutenez. Bi izango gara beraz. Hobe gehiago izango bagina, baina pozgarria da gu-

txienik bik parte hartzea, lehien eta ikuskizunaren ikuspegitik. Harriak probatzera emakume gehiago azaldu dira, baina beharbada denbora behar dute konfiantza har dezaten, eta txapelketako hurrengo edizioetan atera daitezen.

Bestalde, gizonen mailan kuadrilla handia bilduko da azkenean, eta nik uste ziurtatuta dagoela beraien artean saltsa. **Zerk animatu zaitu parte hartzera?** Pauso bat aurrera eraman nuen, ez nuen pentsatzen emakumetan bakarra izango nintzenik. Gauzak horrela, hasieran ez neukan argi, atera ez atera. Gainera, probatu nituen harriak, eta ez nuen burua seguru sentitzen. Nolanahi ere, ideia batek animatu ninduen: alegia, txapelketa herrikoia dela, eta kon-

tuan hartuta espazio publikoa beti gizonen erabakia bereganatu dutela, bada, eskura daukaguna egin dezakegula emakumeek ere geure tokia hartzeko. Horregatik, harrien probaketekin segitzera erabaki nuen, eta saiatuz, zeozer txukun egiteko moduan sentitzen naiz momentu honetan.

Animatuko al zenituzke emakumeak parte hartzera?

Bai, noski! Indarra eta teknika, bi ezaugarri horietatik pixka bat edukita, Santa Krutz Harri Txikien aritu liteke. Azken batean, bizitzako gainerako arlo guztietan bezala, harriekin ere entrenamenduek ematen dizute gutxieneko trebezia. Alde horretatik, emakumeei esango nieke proba dezatela; ez daukate ezer galtzeko. Aurreneko



Leire Otermin. AIURRI

txandan, ezinezkoa den sentsazioa hartzen duzu, baina jada sartu zaizu halako arra, hurrengoan berriro saiatzera tentatzen zaituena. Zeure buruarekin daukazu erronka, eta hortik aurrera, saiatzea da kontua, lehen esan bezala. Gainera, ez zara hutsetik abiatzen; Jon Lopez de Munain erakuslea ondoan daukazu. Harriak jasotzen ibilitakoa da, eta primeran erakusten dizkizu teknikak; segituan esaten dizu zertan hobetu behar duzun, zer posturak hartu, zein-

tzuk ez... Hark emandako laguntzari esker, Bekoplazara ez gara zortzi-hamar "basurde" aterako, gutxieneko teknika batzuk menperatzera heldu diren lagunak baizik.

Zer moduz moldatzen zara bi harrekin?

Txikiarekin, txukun samar. 80 kilokoarekin dauzkate komeriak! Saiatu, saiatuko naiz, baina zaila ikusten dut. Egin kontu, ni 60 kiloko emakumea naiz, eta ez da erraza ni baino gehiago pisatzen duen harria altxatzea!

SALDIAS
ARRANDEGIA

Gora Santakrutzak!

ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704

AMABI GORA SANTAKRUTZAKI

AMABI
haur eta gazte jantziak
0-16 urte

Zumea kalea, 15 - behea. ANDOAIN. 943 59 31 62

ORMENDI
KIROLAK

Kale Berria, 2. Andoain
943 591 806
ormendikirolak@euskalnet.net

Gora Santakrutzak!



Crossfit praktikatzen dut gimnasio batean, eta hori lagungarri egin zait, nahiz eta ez izan kirol berbera. Izan ere, 100 kiloko pesak lurretik altxatzea gauza bat da, eta bestea harri trakets bat lurretik jasotzeaz gain sorbalda gainera eramatea. **Zer iruditzen zaizu txapelketa?**

Idea bikaina izan dute antolatzailleek. Herritik eta herritarrentzako sortutako lehia da; izaera herrikoia eman diote, eta pixka bat entrenatuz gero edo-nork parte hartzeko modukoa planteatu dute. Ekar zitzaizkiren plazetan aritzen diren harri-jasotzaileak, egingo lukete beren erakustaldia, eta sustatuko litzketek herri kirolak. Baina ez lukete piztuko txapelketa herriko honetarako eragin duen ikusmina. Egundoko harrera eduki sortu du benetan.

Giro polita sortzen da Talaia base-rrian, jendea biltzen zaretenean bi harrien inguruan...

Egundoko giroa, bai! Elkar animatzen eta laguntzen aritzen gara. Ahaztu gabe pikea, izan ere, nahitaezkoa baita elkar lehia hori, harriak nork jasoko gehiagotan; sanoa den bitartean, ja-

kina behar duela egon! Are gehiago, behin edo behin komentatu izan dugu polita izango litzatekeela nolabaiteko talde finkoren bat eratzea harriak jasotzeari lotuta, gero behar-bada auzoz auzo ibiltzeko.

Zure inguruan sumatzen al duzu ikusmina sortu duela txapelketak?

Lagunek edo inguruko jendeak adierazi didate txapelketara hurbilduko direla, eta gogoz animatuko nautela. Egia esan, batzuek harritu egin dira nirekin. Izan ere, altueran luzea bai naiz, baina gorpuzkeraz igual ez dut harri-jasotzailearen prototipoa betetzen. Orduan, komentatzen diedanean harri txikia menderatzera iritsi naitzela, beren arpegietan zalantza igartzen diet, ez dakit erabat sinesten ote didaten... Zalantzak uxatzeko, ostiralean Bekoplazara azaltzea izango dute egokiena.

"HERRITIK ETA HERRITARRENTZAKO SORTUTAKO LEHIA DA; IZAERA HERRIKOIA EMAN DIOTE"



Leire Otermin, 52 kiloko harri txikiarekin. AIURRI



Peio Manterola. AIURRI



Ander Olasagasti. AIURRI



Aita Larramendi Ikastola
Jaietan ere ekin euskaraz

Txistoki Pasealekua, zig.
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus





Gora Santa Krutzak

GORA SANTAKRUTZAK!!

Amaia

ESTETIKA

- Depilazio elektrikoa
- Presoterapia
- Aurpegirako tratamenduak: C bitamina

Kale Nagusia, 49 • ANDOAIN • 943 300 669



AUTOKARABANA ETA KANPERREN ALOKAIKU ETA MANTENUA



IKAI VANS
EST. 2022

Balastrain Maixines 4, 9 pabillioia
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tfn. 943098132
info@ikaivans.com



AURTENGO JAI EGITARAUA

APIRILAK 29

OSTIRALA

16:00 Haur pregoia eta txokolatada Zumea plazan.

17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan. Euriarekin Ondarreta ikastetxean.

17:30 Puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin Ondarreta ikastetxean.

18:30 Lebiton konpartsa eta Gora Kaletxiki txaranga, Plaza Moretik abiatuta.

18:30 Zumeatarraren danborradaren irteera, elkartetik.

19:00 Pregoia Zubiaurren, Zumeatarraren eskutik.

19:30 Txosnen irekiera Bekoplazan.

19:30 Harri jasotze herrikoia Bekoplazan: "I. Santa Krutz Harri Txikia".

20:00 Olagain txistulariak eta Alberto Agirre abesbatzaren emanaldia Santa Krutz elizan.

20:30 Oinatz Bengoetxeari agurra, Arrate pilotalekuan.

23:00 Brea eta Gozo Gozo taldeak Bekoplazan.

03:00 Soka salto popularra txosnatan.



Erreka jaitsiera larunbat arratsaldean izango da. AIURRI

APIRILAK 30

LARUNBATA

08:00 Gautxorien argazkia Espigoian.

10:30 Artisauak Zumea plazan.

11:00 Xake txapelketa haurrentzat, Juanita Alkain plazan. Eneko Martiarenaren oroimenezkoa.

11:00 Musika eskolako soinu-joleak.

11:30 Urki dantza taldearen kalejira eta emanaldia Zumea plazan.

12:00 Bertso eta txalaparta kalejira, Plaza moretik hasita.

12:00 Kantu kalejira, Zumea plazatik Plaza Morera. Euriarekin Makaldegian.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. Norberak eraman behar du bazkaria. Mahaiak antolatzaileen eskutik. Euriarekin, Makaldegian.

16:00 La Jodedera, Kale Nagusian.

17:00 Erreka jaitsiera.

17:00 Puzgarriak Zumea plazan.

18:00 Bakailao txapelketa Irunberrin.

18:30 Alargun beltzak elektrotxaranga, Zubiaurretik.

22:00 Zozongo perkusio taldearen kalejira, Juanita Alkain plazatik abiatuta.

22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada, kalez kale.

23:00 Ingo aldeu? Bekoplazan.

MAIATZAK 1

IGANDEA

10:30 Kros herrikoia Zumea plazan. Bixente Huizi memoriale. Ondoren, haur krosa.

12:00 Txirindulari gazteen lasterketa Kaleberrin.

Ondo pasa Santakrutzetan!

urkiola
TABERNA

Etorri eta dasta itzazu gure tabernako pintxo goxoak!

Kale Nagusia, 19 - Andoain
943 32 56 58

Golezako
06:00etatik
gaueko
22:00etara

Urrats
inprimategia

943 575 293
688 618 548

www.urratsinprimategia.com
Zumea kalea, 19. Andoain.
urrats@urratsinprimategia.com
[urrats2010](https://www.instagram.com/urrats2010)

ONDO PASA JAIENTAN

Gabilondo
AHOLKULARITZA

Gora Santakrutzak!

Kale berria, 1-behea. ANDOAIN
Tel./Faxa: 943 303 025
asesoriagabilondo@yahoo.es

Gora Andoain!
Gora Santakrutzak!

arruti

943 593 777

Zumea 18, ANDOAIN



- 12:00** Udal Musika Eskolako Bandaren kalejira.
- 12:30** Udal Musika Eskolako Banda kontzertua Basteron.
- 17:00** Sagardo festa eta Basatoloak Zumea plazan.
- 18:30** Udal musika eskolako konboak.
- 18:30** Herri danborrada Bekoplazatik abiatuta.
- 20:00** Reggae gaua Bekoplazan.
- 21:45** Zezensuzkoa Kale Nagusian, Olajauna paretik hasita.

MAIATZAK 2

ASTELEHENA

- 11:00** Txaranga eta kuadrillen elkartzea Bekoplazan.
- 11:30** Kuadrillen arteko jokoak.
- 14:00** Koadrillen bazkarirako ate irekiera.



Sagardo dastaketa, igande arratsaldean Zumea plazan. AIURRI

- 14:30** Koadrillen bazkaria Bekoplazan. Euriarekin Makaldegian.

- 16:30** Bingo musikatua Bekoplazan. Euriarekin Makaldegian.

- 17:30** Kalejira DJ Bullekin.

- 17:00** Euskaraldia haur jolasak Danena pareko plazatxoan.

- 19:00** Bizikleta festa Zumea plazan. Euriarekin Ondarretan.

- 21:45** Zezensuzkoa, Olajaunatik.

- 21:30** DJ Bull Bekoplazan.

MAIATZAK 3

ASTEARTEA

- 10:30** Dultzaineroen kalejira.

- 10:30** Banderaren jaitsiera Udal korporazioa, eskopeteroak eta txistulariak lagunduta.



Pintxo lehiaketa astearte arratsaldean izango da, taberna ezberdinetan. AIURRI

- 10:30** Santa Krutz zubira iristean, Urkiko espata-dantzarien emanaldia.

- 11:00** Meza santua Santa Krutz ermitan.

- 11:30** Eskopeteroen saioa Santa Krutz zubian.

- 11:30** Espata Dantza eta Brokel Dantzak, Santa Krutz zubian.

- 12:00** Txakolin dastaketa Espigoian.

- 12:00** Trikitilarien kalejira.

- 17:30** Gora Kasete! Haur ikuskizuna Zumea plazan.

- 19:00** Taberna arteko pintxo txapelketa.

- 19:00** Plaza dantza saio ibiltaria, Plaza moretik Zumea plazara.

Oharra: Azken orduko aldaketak egongo balira Aiurri.eus eta sare sozialen bitartez jakinaraziko dira.

**J A T E
T X E A
T A B E
R N A**

**ONDO
PASA
FESTETAN**

**TXINDOKI
TABERNA**

**KALE NAGUSIA, 55
20140 ANDOAIN
TEL.: 943 592 954**

Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Gora Santakrutzak! Gora Andoain!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

Gora Santakrutzak!

Aiurri Beltz
Taberna

Kale berria 9. Andoain. 943 59 35 49

Zabala
Ordukari Bitxitegia

Ondo pasa Santakrutzetan!

Kale Nagusia, 14
943 593 745
Andoain

Gudari enparantza, 5
943 332 341
Hernani

LEIZARAN

Gestión Inmobiliaria

Gora Santakrutzak!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak



Lainez alkatea, Romero zinegotzia eta Barrenetxea Udal teknikaria. AIURRI

Erasoen aurkako protokoloa

Andoaingo Udalak jaietan aurrera eraman nahi duen ekimen sorta aurkeztu du

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak, Berdintasun Sailaren eskutik, eraso sexistak saihesteko hiru ekimen aurkeztu ditu. Alde batetik, herriko jaietan eraso matxistei aurre egiteko urratsak jasotzen dituen protokoloa, "Puntu moreak" delako informazio puntuak eta

salaketak egiteko 112ko aplikazioaren erabilera. "Indarkeria matxistak galarazi egiten du emakumeok espazio publikoa askatasunean gozatzea, deserosoak, mehatxagarriak edo arriskutsuak ere egiten zaizkigu egoerak sortuz", adierazi zuen Petri Romero zinegotziak.



Merkatu plaza, Goikoplazan. AIURRI

Merkatu plaza Goikoplazan, jaiak iraun bitartean

Aurreko larunbateko eta astearteko merkatu plaza Goikoplazan egin zen, Makaldegian bertan jaietako barrakak jarri dituztelako. Jaiak iraun bitartean horrela izango da, pandemia iritsi aurretik egiten zen bezala. Beraz, larunbat honetako (apirilak 30) eta hurrengo astearteko (maiatzak 3) postuak Kontzejupean eta Goikoplazan egingo dira.



Zumea plazako artisautza azoka, 2019ko irudian. AIURRI

Larunbat goiza, artisauena

Goizeko 10:00tan hasi eta eguerdiko 14:30ak arte artisauak Zumea plazan izango dira

Erredakzioa ANDOAIN

Fanny Alonso, Rbelde, Intifa, hAri Macrame, Nerea Tuduri, Eme by Mei, Biak bat, Sortzen, Toñi accesorios, Jukima, Kilo-metroak, Txalaparta, Obrador Mañeko eta Elena nudos marinerak dira aurtengo artisautza azokarako iragarri dituzten

postuak. Goizeko 10:00tan hasi eta eguerdiko 14:30ak arte artisauak Zumea plazan izango dira. Makrame, joskintza, moda, margolaritza, produktu naturalak, jakiak, olerkigintza..., aukera zabala izango da larunbatean. Ekoizpen eta produktu gehienak %100ean eskuz eginda daude.

Pintxoak Kopak

muga

Taberna

Ondo pasa Santa Krutz jaietan!

Zumea plaza, I. ANDOAIN - 943 47 63 94

ORDUTEGIA:
 Asteartetik ostegunera: . . . 09:00-19:00
 Ostiralean: 09:00-17:00
 Larunbatetan: 08:00-13:00

Jai zoriontsuak!

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

Tatoó Piercing Laser Depilazioa

adats

Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak ekainean eta uztaillean.

2022-23 ikasturterako matrikulazioa zabalik

The English Experience

The Tolkien Centre

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoain

Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839

www.andoainenglish.com

aldama_tapia
 aholkularitza

Gora Santakrutzak!

Txitibar plaza 3-behea
ANDOAIN
943 594 476
943 300 167

Gora Santakrutzak!

Amama Klaudia
 GASTROBENTA - DASTATZE - DEKORAZIO ETA ARTEA

GOSARIAK - EGUNEKO MENUA - HANBURGESAK
PRESTATUTAKO JAKIAK - BOKATAK - Harategi-Urdaitegia

Zumea plaza, 5 - behea, Andoain
943 031 615 - 607 327 432. www.amamaklaudia.com



2019an irten ziren azken aldiz eskopeteroak AIURRI



Zumeatarra elkarte. AIURRI



Zezen suzkoa, 2019ko edizioan. AIURRI

Agintaldiko lehen jaitsiera

Udal korporazioak parte hartuko du ikurriñaren jaitsieran. Haiekin batera eskopeteroak ariko dira

Erredakzioa ANDOAIN

2019ko maiatzaren erdialdean Udal hauteskundeak egin zirenetik, pandemia tarteko, ez da ikurriñaren jaitsierarik egin. Beraz, agintaldi honetako alkateta eta zinegotzientzat lehen jaitsiera izango da. Eskopeteroak eta udaltzainak goizeko 10:30ean

Kontzejupean elkartuko dira, eta Kale Nagusian behera abiatuko dira Zubiaurre etxearen pareraino. Han zain izango dituzte Urki dantza taldeko kideak, ezpata-dantzari hasiera emateko. Dantzarien lehen saio hori amaituta, Santa Krutz eguneko mezari hasiera emango diote.

Zumeatarra elkarteak irakurriko du jaien hasierako pregoia

2019ko jaietan Aiurrik izan zuen jaien hasierako pregoia emateko ohorea. 2020an ez zen horrelakorik izan, eta 2021ean Santa Krutz Jai Batzordeak pregoi telematikoa eskaini zuen. 2020an Zumeatarra elkartearen pregoia irakurtzeko aukeratua, elkarrearen 50. urteurrena ospatzen baitzen. Aurtengoan, 50+2. urteurrenean, eurena izango da ahotsa jaien hasieran.

Zezen suzkoa, bi gauez jarraian

Igande gauez eta astelehen gauez haurren gogoko zezen suzkoa udalerrian ibiliko da

Erredakzioa ANDOAIN

Eguraldiari begira ibili beharko da, eta euririk egiten ez badu haur eta gaztetxoaren gogoko den Zezen suzkoa Zumea kalean eta Kale Nagusian zehar ibiliko da. Aurrikusten den bezala, zezen suzkoaren aurretik ibiliko dira dozenaka haur eta guraso. Eta

ez gau bakarrean irtengo, birritan baizik. Gauda iristearekin batera, 21:45ak aldera, Zezen suzkoaren agerpena iragarrita dago iganderako (maiatzak 1) eta astelehenerako (maiatzak 2). Olajauna paretik irtengo da, Lebiton Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren eskutik.



BAIETZ GABE, EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOAINGO UDALA

943 593 527

Ondarreta kalea, 9-behea

ANDOAIN

- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Pintxoak

Ondo pasa jaietan!

Ondarreta

KUKUTEI

HARATEGIA - URDAITEGIA

Kale Nagusia, 59 ANDOAIN 943 593 152



Hautatutako produktua

ONDO PASA JAIETAN

DANENA

Ondo pasa Santakrutzetan!

Eguneko menua

Plater konbinatuak

Bokatak



Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain



Danena ondoan jolasteko eta marrazteko txokoa ipiniko da, astelehenean. AIURRI

Euskaraldiaren haur txokoa

Udazkenean ospatuko bada ere, Santa Krutz jaietan Euskaraldian murgiltzeko ekitaldia antolatu da

Erredakzioa ANDOAIN

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren eskutik, Euskaraldiaren hirugarren edizioa ospatuko da udazkenean. Udalaren babesarekin, eta herri eragile askoren lankidetzarekin, euskara sustatzeko ariketa kolektiboa egingo da. Udazkena iritsi bitarte, fa-

milia giroko ekitaldiak egiteko asmoa du Bazkunak. Lehena Santa Krutz jaietan izango da. Maiatzaren 2an, astelehenarekin, Tahona eta Danena arteko plazarxoan jolasteko eta marrazteko txokoa ipiniko da. Familiei eskainitako tarteak izango da, aisialdia euskaraz osatu dezaten.



Zozongo taldea. AIURRI

Azken orduko aldaketak jaien egitarauan

Larunbat gauean bi aldaketa nabarmen egongo dira. Gaueko 22:00tan Juanita Alkain plazatik Zozongo taldea kalejira abiatuko da. Aski ezaguna den taldea da, maila handiko kale ikuskitzuna eskaintzen dituztelako. Bestalde, egitarauan moldaketa bat egin da. Izan ere, Santa Krutz Peña elkartearen danborrada 22:30ean abiatuko da elkartearen paretik.



Jaien jarraipena egingo du Aiurrik. AIURRI

Jarraipena Aiurri.eus gunean

Argazkiak, bideoak eta jaiari lotutako xehetasunak webgunean ikusgai izango dira

Erredakzioa ANDOAIN

Jaiak iritsi aurretik ere Santa Krutz festei loturiko informazio zabala eskaini da, egunotan, aiurri.eus/bereziak/santakrutzak-22 atal berezian. Jaiak iraun bitartean, Aiurrik ekitaldien jarraipen zabala egingo du. Ohikoa den bezalaxe, argazki-bil-

dumak, bideoak eta jaiari loturiko albisteak Aiurri.eus webgunean ikusgai izango dira. Eta baita sare sozialetan ere. Hots, Aiurrik Twitter, Facebook, Instagram eta Telegram sareetan dituen kontuen bitartez. Bertan eta kanpoan bizi direnen festazaleentzat berezia izango da.

AURTEN BAI!

GORA SANTAKRUTZAK!

www.txapelasybordados.com
www.txapelabordatuak.eus

Kale Nagusia, 12.
ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com

andoaINDARRA
euskaraz

Txitibar T

Gora Santakrutzak

Zumea plaza, 7
943 570 492
@txiti_bar

AZKAIN MOTOAK

Motociclisten behar guztiak
Motociclisten akzioak
Mota gurutetako Scooterak
Salmenta eta konposaketak
Quad ATV modelu guztiak

PREZIO INTERESSABIAK

Moneta azken, Pst. 30-812 - 28100 Andoain
Tel. 943 303 433 / Fax: 943 308 430
www.azkainmota.com / azkainmota@azkainmota.com

Gora Santakrutzak

BELKOAIN

Fisioterapia zerbitzua

Eskola kalea, 6-atzealdea
8. lokala. Andoain
943 591 202



Txapelketa amaituta, jokalaria onenaren saria jaso zuen. ALBIZU

Iker Albizu Agudo jokalaria onena Oviedon, Realarekin

Aste Santuan Oviedon alebin mailako txapelketa jokatu zen, eta bertako futbolari onena izendatu zuten

Andoni Urbistondo URNIETA

Iker Albizu Urnieta KE taldeko futbolaria Aste Santuan Oviedon jokatu zen Txapelketako jokalaria onena izendatu zuten, 12 urtez azpiko kategorian. Realaren kamisetarekin jokatzen duen bigarren aldia da Albizurentzat, Gabonetan jokatu baitzuen lehen aldiz. Berrogeita zortzi taldek parte hartu zuten Oviedon, eta Realak irabazi zuen txapela. Pasa den asteburuan ere Realarekin aritu zen gaztea, Bizkaiko Leioan, eta Albizuk gola sartzeko sena berezia duela erakutsi zuen, sei gol sartuta.

Aste Santuko egonaldia Euskal Selektzioarekin amaitu du

Astelehenean bukatu zuen bi asteko ziklo polita Albizuk, Euskal Selektzioaren entrenamenduan parte hartuz, lehen aldiz, Zubietan.



Urnieta KE taldeko jokalaria da, baina Oviedon Realarekin aritu zen. ALBIZU



Santa Barbara. AIURRI

Zilegi-eskolarekin, eskalada-saioa Santa Barbaran

Ostiral honetan, apirilak 29, Zanpatuz elkartearekin batera eskalada saioa antolatu du AEK-k. Santa Barbaran izango da, arratsaldeko 16:00etan hasita. Parte hartzeko ez da aldeaz aurreko ezagutzarik behar, interesa besterik ez. Doako saioa izango da. Komeni da izena ematea: zilegieskola@aek.eus helbidera idatzita edo 663 04 33 14 zenbakira mezua bidalita.

4 eta 12 urte bitarteko aisialdia osatzeko eskaintza

Eguzkitan Blai eta kirol-udalekuetan izena emateko aukera zabaldu du Udalak, 2010-2018 urteetan jaioetakoei begira. "Herriaz gozatzeko aukera izango dute haurrek, euskaraz". Horrela iragarri dute ekimena. Maiatzaren 6ra bitarte izena emateko aukera zabalik dago. Lekaio kultur etxean edota Urnieta.eus webgunearen bitartez.



Gustuko bidaia aholkatzeko lehiaketa martxan dago. UDALA

Bidaiateka gazte lehiaketaren edizio berria aurkeztu dute

Urnietako Gazte Informazio Puntuak antolatu du, Beterri-Buruntzako gazteei begira

Erredakzioa URNIETA

Lehiaketa Instagram bidez egingo da. Lehenengo fasean 60 segundoko bideoa igo beharko da bidaiaren aurkezpena eginez. Horretaz gain, @gazteinfournieta profila jarraitu beharko da,

feed-eko testuan @gazteinfournieta aipatu beharko da. Ezarritako epean igotako bideoen arten maiatzaren 9 arte ahalik eta "atsegin dut" gehien lortzea izango da helburua. Informazio gehiago Urnieta.eus gunean.

Euskarak saria dakar

Gida-baimena euskaraz ateratzea sustatzeko xedez, sariak banatu ohi dira Beterri-Buruntzan. Lasarte-Oriako Mugica autoeskolako ikasle izandako Maite Jauregi Alberdik irabazi du 400 euroko saria. Zozketan sartu dituzte azterketa gainditu duten urnietar guztiak, nahiz eta Urnietako autoeskola batean matrikulatuta ez egon.



UDALA

GALARRETA JAI ALAI | SARRERA DOAN



Sagardoaren txapelketa


MAIATZAK 2 ASTELEHENA | 19:00-TATIK AURRERA




EZKURRA II · ZALDUA I · ALDABE · LARRAÑAGA



SEGUROLA · AZPIROZ



ERREMONTA BIZIRIK



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Entseguak

Santa Krutz jaietako danborrada ezberdinen azken entseguak Leizaran jatetxearen ondoko lokalean.

19:30, Santa Krutz Peña.

20:30, Irunberri.

ANDOAIN Erakusketa

"Punctum", Pedro Gaztañagaren margolanak ikusgai.

Bastero, erakusketa gela.

Azken eguna: Apirilak 30.

ANDOAIN Dantza

"Kenophobia" ikuskizuna, Osa + Mujika konpainiaren eskutik.

19:00, Bastero.

URNIETA Lehiaketa

Urnietako Udalak eskultura lehiaketa antolatu du. Emakumeei zaintzen eremuan egindako lanarengatik aitortza egitea da helburua. Oinarriak Urnieta.eus gunean ikusgai daude.

Epea: Uztailak 15.

OSTIRALA 29

ANDOAIN Santakrutzak

Jaien hasierako pregoiak, haurrena eta helduena. Egitarau osoa, gehigarri berezian.

16:00, Zumea plaza.

19:00, Zubiaurre.

URNIETA Lehiaketa

Urnietako Gazte Informazio Puntuak Bidaiteka lehiaketa jarri du abian,



Ikusbera haur aldzikariaren baitan jolasteko eta marrazteko aukera izango da. AIURRI

ANDOAIN Euskaraz jolasteko aukera, Euskaraldiaren eskutik

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurtengoan ere Euskaraldia bideratuko du Andoainean, Andoaingo Udalarekin eta gizarte eragileekin lankidetzan. Udazkeneko ekimena iritsi aurretik, Santa Krutz jaietan familiei begirako ekitaldia antolatu dute. Marrazteko eta jolasteko aukera izango da.

Maiatzak 2, astelehena. 17:00, Danena taberna pareko plazatxo.

IGANDEA 1

ANDOAIN Kontzertua

Musika eskolako banda zuzenean.

12:00, Bastero.

OSTIRALA 6

ANDOAIN Erakusketa

Kanpezu 50 urte, La Salle Berrozpe ikastetxeko kanpaldiari buruzkoa.

Maiatzak 6-28. Bastero.

ANDOAIN Kontzertua

Marc Ribot amerikarra zuzenean.

19:00, Bastero.

URNIETA Udako aisialdia

Urnietako udalekuak ekainaren 27a eta uztailaren 29a bitarte izango dira. Izena-emateko aukera zabalik dago Urnieta.eus webgunean.

Azken eguna: Maiatzak 6.

OSTIRALA 13

ANDOAIN Dantza

"Gauekoak" ikuskizuna, Kukai dantza taldearen eskutik.

19:00, Bastero.



AIURRI

Iturzaeta pala txapelketa

Emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako txapelketa egingo da Andoaingo Sorabilla frontoian eta izen-emate epea maiatzaren 1era arte egongo da zabalik. Izen ematea WhatsApp bitartez egin behar da 634 40 31 14 edo 676 15 32 30 telefonoen bitartez. Partidak larunbatetan eta igandetan jokatu dira. Eguraldiak egutegia baldintza dezake.



AIURRI

Positiboen hazkundea

Aste batetik bestera, bikoiztu egin dira kasu positiboak Andoainean. Aurreko hiru asteetako batz bestekoa 20ra ez zen iristen, eta azken astean 43 kasu zenbatu dira. Datu horiekin intzidentzia-tasak 400eko langa gainditu du. Urnietako eta Gipuzkoako intzidentzia-tasaren gainetik dago Andoain. Urnietan, kasu positiboek dagokionez, ez da horrelako igoerarik izan.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoainean urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugarte Mendia.

idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietako).

Diseinua: Golea Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.

Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



Urnietako
udala



Aste Santuaren aurretik egoera txarrean zegoen panela kendu zuten. AIURRI

Estalki berria jarriko dute, eta hori ere lastozkoa izango da

Zarata saihesteko lastozko panela zegoen lehen, eta jarriko duten berria material berdinarekin eginga dago

Erredakzioa ANDOAIN

Aita Larramendi ikastolaren parean N-1 errepideko trafikoak sortzen duen zarata gutxitzeko lastozko hesitura berria jarriko dute, aurrekoa nabarmen kalte-tetu ostean. Zaharrak berri, beraz. Behin behineko "panel

akustikoa" betikotzeko moduan da, martxa honetan. Aste Santuko oporraldiaren aurretik kendu zuten hesitura zaharra, plastiko urdinez estalita zegoena. Datozen egunetan berria jartzekoak dira, eta hori ere lastozkoa izango da.



Bideoa Aiurri.eus webgunean ikus daiteke. ONDARRETA

'Euri tanta' kantu ezaguna, hizkuntza ezberdinetan


Andoaingo Ondarreta ikastetxeak Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen kantuekin bideoa osatu du

Erredakzioa ANDOAIN

Ondarreta ikastetxeko familien artean hamabost hizkuntzatik gora hitz egiten dira, euskara eta gaztelera kontutan hartu gabe. Aniztasun hori kantu bilakatu dute, "Euri tanta" kantuan islatu dena. Kantu ezagunaren

pasarteak honako hizkuntzatan abestu dira: wolofrera, arabiera, frantsesa, ingelesa, euskara eta gaztelania. "Era xumean, maitasunez landu eta grabatu dugu Pirritx, Porrotx eta Marimotots lagunen erronkei jarraituz", adierazi dute ikastetxeko kideek.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak
Oier Muñozek
10 urte bete
zituen hilaren
19an.
Muxu potolo
bat,
etxeak.

ANDOAIN
Malen
Apirilaren
25ean, 15
urte bete
zenituen,
jarraitu jator.
Asko maite
zaitugu!

ANDOAIN
Zorionak!
27an 4 urte
beteko ditu
Mariok!
Aiurriko
erredakziotik
gure zorionik
beroan!



ANDOAIN
Pello Lopez
Zorionak zure 11.
urtebetetzean! Ziur
hamaika abenturaz
betetako urtea
izango dela hau ere



ANDOAIN
Urte askuan Ane
Ondo pasa
Santakruzak eta
bereziki maiatzaren
3a. Muxu asko
etxekoan partetik!!!



ANDOAIN
Zorionak bikote!
Inge eta Unaxek apirilean 7 eta 10 urte bete
dituzte. Zorionak bikote! Orain arte bezain
jator izaten jarraitu. Asko maite zaituztegu.
Muxu handi bana. Aiton-amonak



ALEX GOYA
(Villabona, 20 urte)
Industria Prozesuetako
Ekoteknologien
Ingeniaritza graduako
3. maila ikasten
ari da Mondragon
Unibertsitatean.

www.mondragon.edu/prest

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotsa

"Oso metodologia praktikoa eta erreala da"

Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu zaletasunik?

Villabonako Fleming Herri Eskolan eta Erniobean, eta Tolosako Orixe BHI n ikasi dut. Zaletasunez dagokienez, futboleko aritu naiz 10 bat urtez, Villabonako futbol taldean eta mendi eta eski irteerak ditut gogoko.

Zergatik aukeratu zenuen Industria Prozesuetako Ekoteknologien Ingeniaritza graduak? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Unibertsitate honek dituen ikasketa metodologiaz gain, graduak mekanika, material teknologia eta fabrikazio prozesuak uztartzen ditu eta gainera hauen optimizazioan hausnartzen da, prozesuen jasangarritasuna aztertuz. Campusa etxetik gertu eta instalazio berriak eta modernoak izatea ere positiboa dela niretzat.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso esperientzia aberasgarria izaten ari da. Ingeniaritza graduak eman dizkidan ezagutza teknikoez gain, taldean lan egitea asko tokatu zaigu, non asko ikasi dugun proiektuak taldeka kudeatzen eta baita jende aurrean proiektuak defendatzen.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Oso metodologia praktikoa eta erreala da. Enpresa-unibertsitate harreman estua izateaz gain, ikasketa metodologia gustatzen zait. Sei hileko bakoitza 2 bloke nagusietan banatzen da, eskola-egunak eta azterketak eta proiektuak, non irakasleek proiektu bat aurkeztzen duten eta ikasleek taldeka arazoari soluzioa eman behar diogun,

honen prototipo fisikoa, defentsa eta dokumentazioa barne.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Enpresa-unibertsitate harremana eta, honi lotuta, DUAL lan-ikaste partekatze programa, ikasketa metodologia eta, bestalde, aipatzekoa da irakasle asko ikerketan ibiltzen direla eta beste batzuk enpresatik etorriak direla. Hobetzeko puntu bezala, faltan botatzen dut maila ezberdineko ikasleen arteko harremana.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

GBL (Gratu Bukaerako Lana) hemen egin nahi dut enpresaren batean, lan mundua ezagutu, proiektu aberasgarri bat garatu eta curriculum betetzen joateko. Hortik aurrera, master eskaintzak begiratzen ari naiz, baina oraindik ez dut erabaki.



Beste ikuspegi batetik begiratu dio Jauregik aizkorari. SAHATSA



Eskarmentu handiko artista da Sahatsa Jauregi. DANI BLANO, ARGIA



Burdina izan du lanabes nagusi. SAHATSA

Bestelako ebakia aizkorari

Urrietako Joxe Ramon Jauregi aizkoragilearen sutegian aritu da lanean Sahatsa Jauregi Azkarate artista, "Aizkora" erakusketa osatzeko. Orain gutxi arte, Bilboko Azkuna Zentroan egon da ikusgai

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Aizkoraren iruditeria kolektiboan ipini du begirada Sahatsa Jauregi Azkarate artistak bere azken lana ontzeko: "Aizkora". Hala, bilduma kutsuko ikerketa eginda lehenik, eta, burdinaren askotariko formetan jolastuta ondoren, erakusketa egin du –Bilboko Azkuna Zentroan, apirila amaierara arte egon da ikusgai–, aizkoraren euskal sinbologia tradizionalaren eta artistaren beraren imajinarioaren arteko joan-etorrian.

Hari horri tiraka, apirilaren 7an, tertulia formatuko aurkezpen batekin azaldu zituen obraren nondik norakoak, Miren Jaio arte-kritikaria gidari. Ikerketaz nahiz sorkuntza-lanaren gorabeheraz mintzeaz gain, obraren bizkarrezurrari, hain justu ere, aizkorari, eutsi zion solasaldian. Bi aulkien atzean, erakusketa: aizkorak egiteko moldeak hondarrarekin irudi-

katuta, batetik; eta, bestetik, burdinazko eskulturak.

Aizkora, sugea eta baserria

Harreman kultural bezain pertsonal batek eraman du Jauregi "Aizkora" altxatzera, arte garai-kidearen eta euskal gatazkaren iruditeriaren arteko erlazioan murgiltzeko borondatez: "Presentzia handia izan duen figura sinbolikoa da, bai gatazkak iraun duen urte guztietan, bai su-etenen ondoren". Hernanin hazia da eskultorea, aizkoraren irudiak pisu samar izan duen herrian: "Irudiari dagokionez, garai emankorra izan zen, kartelek, pankartek eta pegatinek Euskal

"AIZKORAK PRESENTZIA SINBOLIKO HANDIA IZAN DU BETI EUSKAL HERRIAN"

Herriko kaleak moztarrotu zituzten, bertako arkitekturan eragiteraino". Kultura bisual horrekin zorretan sentitu izan da maiz, harrezkero, baina badu, era berean, aizkorari hurbiletik erreparatzeko beste aitzakia bat. Bere aitaren lehengusua da Joxe Ramon Jauregi aizkoragile urrietarra, ezinbesteko bidelaguna sorkuntza-prozesuan, ordu luzez aritu baita hernaniarra herrian aski ezaguna den sutegian.

Hala, ezinegon hori asetzeko, ikerketa-lanetan murgildu zen buru-belarri Jauregi, besteak beste, gertukoek bidalitako argazkietan, lagunaren tatuajeetan zein Lazkaoko Beneditarren Fundazioan, aizkoraren askotariko adierien bila. Azken horretan, esaterako, 14.000 artxibotan arakatu ostean, batez ere, ETA-ren anagramarekin zein Negu Gorriak taldearen logoarekin egin zuen topo, baserriari erreferentzia egiten zioten ikonoak

aurkitzeaz gainera. "Denboraren poderioz, aizkorak bestelako esanahiak ere hartuko zituela pentsatzen nuen", dio Jauregik; alabaina, asmo artistikorako "espresiboki pobrea" den bilduma osatu du. Horrela, kolekzioaren logikari erantzuten dio ikerketak, artistaren esanetan, eduki-pilaketa xede, "irudi beraren etengabeko errepikapena" gordetzen duelako. Horregatik, bildumatik nondik tira ezin jakinda, sutegian sartu eta hutsetik hasi zen aizkorarekin lanean, itsu-itsuan.

Biolentziaren erotika

Joxe Ramon Jauregi eta Fermin Muguruza. Biak ala biak izan ditu buruan artista hernaniarrak "Aizkora" obran; izan ere, nork bere bizipenetik, irakurketatik, harreman estua izan du objektu horrekin: 40 bat urte daramatza lehenak sutegian, eta, apurka-apurka, bere gotorlekua osatu du; aldiz, musikari irundarraren taldearen logotipoa ikur bilakatu zen 90. hamarkadan. "Aizkoraren fetixismoak" ere erakarri zuen artistaren arreta, "biolentziaren erotika" baitakar berekin, "mina eta desira sentiarazteko gai baita".

Onarritako teknikak erakutsi zizkion aizkoragileak, eta ho-

"SUTEGITIK ALDENDU ETA FANTASIAZKO LEKU EROTIKOETARA JOTZEKO GOGOIA IZAN DUT"

rrela hasi zuen, artistaren iritziz, biek "gozatu" duten prozesua. "Probatik eta akatsetik" asko izan zuen hasierak; aizkora-ahoekein abiatu zen: "Kosta egin zitzaidan identifikatuta sentituko nintzen leku erosoak bilatzea". Bada, horrelako batean, begi formako bi pieza izan zituen eskuan: "Horrek lagundu ninduen nire norabidea zehazten. Hor erabaki nuen aurreko erakusketan, Artiatxen, hasitako eskultura biomorfo figuratiboaren ideia ez zegoela agortuta". Ez da lan makala izan eskultorearentzat sutegiko lana, "espazio iluna eta zaratzatsua" delako, haren aburuz: "Horren aurrean, espazio horretatik aldendu eta fantasiazko leku erotikoetara jotzeko gogoia izan dut".

Eguneroko objektuetatik, burdinera

Urte luzez, egunerokoa inguratzeko duten objektuekin lan egiteko ohitura izan du Jauregik, harik eta "Los Brutos" erakusketa aurkeztu arte. "Arretaz ibiltzen nintzen kaletik, etengabe, edozein objektu izan zitekeelako nire obrarako erabilgarri. Nekea dakar horrek". Artiatx espazioak bermatutako baliabideak zukutu zituen, horrenbestez, eta lagunei ateratako argazki batzuk "errealitate itzultzeko ariketa" egin nahian, burdinezko bihurtu zituen erretratuak. Lehengai bera erabili du azken honetan ere aizkoraren bidez; dena dela, bestelako ebakia eman dio, jakina.